

Berbarotarra



Ondo etorri Lehior eta Maite!

Intentsoak izan dira azken urte hauek. Ia bost urte eman ditut Berbaron lanean, gustura, eta eman baino jaso gehiago egin dudalakoan nago. Topikoa dela badakit, baina horrela sentitzen dut eta egokiena horrela esatea dela uste dut. Ibilbide leuna izan denik ezin esan ordea, hamaika proiektu ditu elkarteak eta, beraz, lana ez da inoiz faltan egoten Pinondo Etxeko bulego desordenatu bezain bizian. Edozein kasutan, inguruko eta, batez ere, lankideen laguntzari esker momentu onak askoz ere gehiago izan dira. Eskerrik asko beraz, berbarotar guztioi emandako aukeragatik. Dena dela, ni ez naiz asko urrunduko elkartetik. Berbarok egiten duen lanean sinesten dut eta, horregatik, bulegoan egon ez arren, lanean jarraitzeko prest eta gogotsu nago. Esan bezala, hamaika proiektu ditu Berbarok martxan, baina beste hamaika ere martxan jartzeko gogoz dago elkarteak 20 urte bete dituen honetan, eta horretarako, zure laguntza behar dugu. Zure ideiak eta iradokizunak jaso gura ditugu, zure ilusio, esku eta burua behar ditugu bidean aurrera egiteko. Denontzako zabalik dago Pinondo Etxeko atea, hurbildu zaitez trankil asko!

Berbarotarra buletinean testutxo hau idazteko aukera eman didate eta zuei eskerrak emateaz gain, langile berriak aurkezteko ere erabili nahiko nuke.

Nire ondo etorrikerik beroena beraz, Lehiorri!. Lehior Elorriaga da Berbaroko dinamizatzaile berria. Hilabete darama zaldibartarrak elkarteak eta dagoeneko martxa hartua diola esango nuke. Heldu eta Haur Literatur Aretoa suertatu zaio parean gainera, ez du aspertzeko aukerarik izango!

Bestalde, Hiart Zamakonak ere lan berri bati ekin dio eta, beraz, hemendik aurrera Maite Unzalu izango da Berbarok Kurutziaga ikastolari ematen dion aisialdi zerbitzua kudeatzeaz arduratuko dena. Kurutziaga ikastolan egin beharreko lanaz gain, etorkinen seme-alabei eskaintzen zaien Euskera Errefortzu Saioretako arduraduna izaten ere jarraituko du Maitek. Ondo etorri beraz Maite ere eta, nola ez, eskerrik asko Hiarti egindako lanagatik eta elkartera ekarritako irudimen eta sormenenagatik! Zu ere ez zara Berbarotik urrun ibiliko, ezta? • Ione Narbaiza



JOLASTUZ, EUSKERAN MURGILTZEN

Aurten, hirugarren urtez jarraian, euskara indartzeko saioei eman diegu hasiera. Durangon Pinondora bueltatu eta bertan batzen gara egunero ikastetxe guztietako ume, gehienak, atzerritarrak eta Berbaroko begiraleak. Estreinekoz, lurretako Maiztegi Herri eskolan ere antolatuta dituzte saioak eta han ere bagabiltza umekin eguerdiko jolasaldian. Halaber, nagusiak, 12 eta 16 urte bitartekoak guretik gertu, Pinondon bertan dabilta AEK Abarrek-en euskaltegian helburu berdinarekin. Euskara modu natural eta dibertigarri baten agertu eta kultura elkartrukatzeko dugu, ikasi bai

baina irakatsi ere egiten dute gazteek. Eskulanak, jokuak, bingoa, karaokea... hainbat dira egiten ditugun ekintzak. Umeen jatorriak ezberdinak dira oso, bata bestearengandik: Bolibia, Errumania, Ghana, Maroko... eta guztiek komunikazio bide bakarra dute ordu betez bada ere, euskara. Proiektu txikia zena haunditu eta bere nortasuna hartzen hasi da. Herrira zabaltzea da gure erronka, hemen gaudela eta aurrera egingo dugula jakinaraztea. Behin herrira zabaldua, mundura ere eraman genezake euskara, nork jakin, ... izango duzue gure barri!!!

20. Haur Literatura Aretoa



5.000... Hori da aurtengo gure Haur Literatura Aretotik pasatuko den ume kopurua. Azaroaren 12an Zornotzan hasi zen proiektua (Elorrio, Zaldibar eta Durango ondoren) eta ordutiik, hainbat izan dira gurekin parte hartu duten idazleak: Aizpea Goenaga, Antton Kazabon, Antton Irusta... eta oraindik pasatzeko daudenak! Haur Hezkuntzako umeak Berbaro Antzerki Taldeak prestatutako ipuin antzeztuetan Itsasoko animaliak gaia lantzen ari dira eta Lehen Hezkuntzakoek bi gai dituzte aukeran: Anita ilezikin antzeztanaren bidez, heriotzaren gaia jorratzen dute eta Maite Franko ipuin kontalariarekin, aldiz, bizikidetzaren gaia. Horrez gain, aretotik pasatzen diren guztiek, 2009ko argitalpen berrien eta 2008ko liburu gomendagarrien erakusketa girotua dute ikusgai eta bizigai, Perretxiko erraldoiaren ginkana zain dutelako, liburuekin gozatu eta dibertitzeko! Proiektu honen 20.urteurrena ospatzeko, erakusketa girotuko talde bakoitzari liburu sorta bat oparituko diegu ikasgelara eraman dezaten.

Bestalde, ekintza gehigarriak ere planteatu ditugu Durangon, Plateruena kafe antzokian, adin guztietako herritar guztiei irekiak:

17:30ean: 3-12 urte bitarteko umeentzako antzerkia.

- Abenduaren 16an, arratsaldeko 20:00etan: helduentzako Komuneko paperean idatzitako poemen errezitaldia.
- Abenduraren 20an, arratsaldeko 17:30ean: 12 urtetik aurrerako gazteentzako 'Klownstrofobia mendian' antzezlana. Bukatzeko, urtero bezala, HLA Azokan ere izango dugu eta hurrengo da umeen txoko honetako egitaraua:

	ABENDUAK 5	ABENDUAK 6	ABENDUAK 7	ABENDUAK 8
10:30	Irakurketa librea	Irakurketa librea	Irakurketa librea	Irakurketa librea
11:30	Eskulana: Arkatzak gordetzeko poteak	Zaintxo-Pello Añorga	Eskulana Agendatxoak	Eskulana: Orri-markatzaileak
12:30	<i>Ikazkinaren alaba</i> ipuin kontaketa-Alaitz Muro eta Agurtzane Villate	<i>Pantaka, Txinparta, ederra zaaparta!</i> -Zurumurru antzerki taldea	<i>Elefante txiki bat</i> -Rosa Maria Martinez	<i>Antzokiko istorioak</i> -Jakín eta Jolas antzeztan
13:30	Irakurketa librea	Irakurketa librea	Irakurketa librea	Irakurketa librea
15:30	<i>Olatu guztien gainetik</i> M.Agur Meabe eta E. Morente • <i>Agur ama!</i> Y.Arrieta eta A. Alonso	Eskulana: Txapak	Eskulana:Agendatxoa	Bideo emanaldia
17:00	Eskulana: Arkatzak gordetzeko poteak	<i>Juanita Kux-Kux</i> ipuin kontaketa-Maite Franko	Eneko Atxaren errazetak	<i>Dantzaz blai!</i> berbena-Jakín eta Jolas antzeztan
18:00	<i>Ipuinak musikarekin</i> -Oihulari Klown	Euskal karaokea	<i>Arre, arre eta Tristan, triste!</i> -Antton Kazabon	Eskulana:Orri-markatzaileak
19:00	<i>Nur eta herensugearen tenplua</i> -T.Martinez de L.	Irakurketa librea	Irakurketa librea	Irakurketa librea
19:45				

ZAINDU ZURE OSASUNA! Senda-belar ikastaroa

Amaitzean da aurtengo antolatutako azken ikastaroa. Senda-belarren ikastaroa. Belarrak larrean ikusteko eta jasotzeko ez denez garai egokia, oraingoan ikastaroa etxean ditugun osagaien inguruan antolatutako dugu. Gustatuko litzaiguke, udaberri-uda aldera ikastaro honen bigarren zati bat prestatzea, sendabelarretan gehiago sakontzeko.

Orain arteko lau egunetan, etxean izaten ditugun osagai desberdinak gure osasuna zaintzeko nola erabili ditzakegun ikasi dugu eta falta diren bi egunetan Aloe Vera krema egiten ikasiko dugu. Aloe Vera da, Maribi Abendibar, gure hizlariak, gehien erabiltzen duen landareetako bat, sakutearekin batera. Bere esanetan aipatzeko erremedio erreza eta erangikorrenetakoa da, erreduretan Aloe Vera jartzea zaurian.

Txikitatik etxean amak sendabelarrekin egindakoak interesa piztu zion Maribiri, baina orain dela hamar bat urte hasi zen mundu honetan murgiltzen. Ikastaro ugari egin eta hasieran liburuak erabiltzen bazituen ere, gaur egun interneteko sarean barrena informatzen da. Nundik nora jarraituko dugu guk?



ikimilikili..klik

argitalpen berriak



Eneko Atxaren Errazetak edo **zure umeekin jolasean egiteko errezetak** izenburuarekin argitaratu du aurten Di-da komunikazioak liburu berria. Sukaldean aritzeko errezetak eta ipuinak, formatu berri batekin eta oparitzeko pack dotorean bilduta. Liburuan agertzen diren errezetak Eneko Atxarenak dira eta ipuinak Andoni Lupiañezenak.

Di-da Komunikazioa eta Kalitatea Fundazioa elkarlanean aritu dira lan hau osatzeko eta proiektua elaboratzerako garaian garrantzitsuak izan dira bertako produktuak, bertan ekoiztu eta plazaratzen direnak erabiltzea.

Era berean, garrantzia berezia eman izan diote diseinuari, ondo egiteari, txukun aurkezteari, eta formatu eroso baten argitaratzeari, umeak beldur barik zikintzeko eta erabiltzeko.

Eneko Atxa sukaldariaren hitzetan etorkizun handiko lana egin dute, "umeentzako sukaldaritza arlo estrategikoa izango baita". Dagoeneko liburua salgai duzue liburu-dendetan. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan Ibaizabal argitaletxearen standean aurkituko duzue.

Prezioa: 20 euro
On egin!

Beste gauza batzuen artean (onak eta ez hain onak) "idazle" izateko aukera ere ematen digu internetek. Blogak dira hain zuzen ere adituentzako, aditu ez garenontzako eta sasi adituentzako internetek eskura jartzen duen erremintetako bat.

Blog batzuk ikasteko aukera ematen digute eta beste batzuk irakurtzea gozatzea da.

gotzenetik.blogspot.com: baserriaren egunerokotasuna kontatzen dute blogean. Antzinako ohiturak eta teknologia berria uztartzea lortu dute egileek.

Euren esanetan *"Euskal Herrian betiko baserriak galtzeaz daude edo gaude. Hau da, beren bizimodua bertatik ateratzen dutenak oso gutxi dira, non eta ez den granja edota antzeko egituraketan birmoldatzen. Gure arbasoen gehiengoa baserri mundutik dator baina hala ere askotan baserriarren bizimodutik oso gutxi ezagutzen dugu"*.

Gotzonek blogean kuxkuxeatzea gomendatzen dizuegu. Artikuluaren artean sendabelarren gainekoak, esnearen prezioaren afera, baratzeko kontuak eta baserriko animaliei buruzko hainbat istorio topatuko duzue.

Baserritik alde egin, eta oholtzara goaz. Argia aldizkaria eta Info7ren arteko elkarlanetik sortutako webTv saio berria da Hitzetik Hultzera. Umorearen bidetik Bertsolaritza Txapelketa Nagusiak asteburuan eman duena aztertzea ardatz duen programaren kapituluak asteazkenero zintzilikatuko dituzte web gunean. Ikusi, deskargatu eta hedatu, bideoak jabetza publikoa du eta. Lehenengo kapitulua ondoko helbidean:

www.argia.com/multimedia/bideoa/hitzetik-hultzera-lehen-kapitulua

